


TERNUAN ETA QUÉBEC-EN (Euskaltzaindiarentzako txostena)

Donibane Lohizune, 2000-VII-22

Henrike Knörr

Ternuako Northern Peninsula Heritage Society deritzanak gonbidaturik, eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak horretarako eman diruari esker, uztailaren 23tik 25ra Ternuan parte hartu nuen elkarte horrek urtero antolatzen duen historia biltzarrean. Biltzar hori Selma Huxley Barkham historialariaren eraginez egiten da, Ternua eta Labrador probintziak ordaindua.



*Québec-eko Commission de Toponymie deritzanaren egoitzan.
Ezkerretik eskuinera: Henri Dorion, Chistian Bonnelly, Henrike Knörr eta Marc Richard.
2000ko ekainaren 28an.*

Biltzarra Ternuako Ipar-mendebaldeko kostan dagoen Bird Cove herrixkan izan zen, entzuleria handiarekin. Hamabi txosten aurkeztu ziren bi egun horietan, Ternua eta Labradorreko historiari buruz.

Aukeraz baliaturik, zenbait bisita egin genituen biltzarkideok. Jakina denez, euskaldun arrantzaleak han aritu ziren XVI. eta XVII. mendeetan. Ternuako kosta hori *the Basque coast* deitzen zen garai batez, eta asko dira han eta Labradorren gure herritarrek jarritako izenak, hala nola *Baia Ederra* (egun *Bonne Bay*), *Portutxoa* (orain *Port-au-Choix*), edo *Ferrol Zaharra* (gaur *Plum Point*). Ternuako ingelesean gelditu da euskal hitzen bat, nahiz eta desitxuratua: *barratxo*, “badia bateko lur-muturra”, gaur *barachois*. Ezaguna da orobat Martin Oihartzabal Ziburukoak frantsesez idatzi eta 1579an Bordelen argitaratu zuela itsasgizonentzako arruta-liburua, ia mende bat geroago Pierres Etxeberrri, ezizenez *Dorre*, donibandarrak euskarara itzuli zuena, testu gehiago sarturik, *Itsasoko nabigazionea* tituluarekin (Baiona 1677, ikus facsimile argitalpena, Donostia 1985). Etxeberrik egin zuen, gainera, Ternuako mapa bat, hango agintariek eskaturik.

Bisita horien artean aipa daiteke Labradorreko Red Bay-ra egin nuena. Euskaldun baleazaleen *Buttus* izenez ezaguna zen portu horretan museo interesgarri bat dago, berriztapen lanak egin ondoren hil honen 29an berrinauguratuko dena. Toki hura *National Historic Site* gisa aurkitzen da duela zenbait urtez gero.



Ternuako Sinposiumaren bukaeran.

Ezkerretik eskuinera: René Enguehard, Françoise Enguehara, Selma Huxley, Robert Cormier, Henrike Knörr.

2000ko ekainaren 25ean.

Québec.eko bisita

Québec-era joan nintzen gero, eta han bilera interesgarri bat izan nuen *Commission de Toponymie* izeneko zuzendaritzakoekin. Horietako bi, Henri Dorion eta Christian Bonnelly, Donostian izan ziren hizlari aurreko egunetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolaturiko mintegian.

Commission de Toponymie hori 1977an sortu zen, René Levesque Québec-eko presidentek aurreko urteko hauteskundeetan irabazle gertatu ondoren. *Charte de la langue française* deritzan legeak aipatzen zuen 3. kapituluan, Office de la langue française izenekora lotua.

Lan handia burutu du batzordeak probintzia osoko izenen gainean, argitalpenetan eta urteko txostenean nabari denez. Lehendik elkarrekin genituen loturak sendotu dira orain. Bereziki aipagarri iruditzen zait nazioarteko mailan (demagun, Frantziako Institut Géographique National, Nazio Batuak, Michelin mapa eta giden argitaletxea, e.a.) egiteko asmoa dugun lana, gure leku-izenen forma jatorra erabil dadin.